



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko irailaren 16a

101. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa. Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Jabeldura, Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeak zuzenbidearen arabera onartzea edota Nafarroarentzat komenigarritzat ez jotzeagatik Nafarroako Gobernuak sistematikoki ez betetzeko politika orokorraren gainekoa, Xabier Lasa Gorraiz jaunak egina (6. or.).

—Jabeldura, Nafarroako Parlamentuak enpleguaren arloan onetsitako erabakiak betetzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak egina (7. or.).

—Jabeldura, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren eta hura berritzearen inguruan Nafarroako Gobernuak duen politika orokorrari buruzkoa, Juan Carlos Longás García jaunak egina (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da alda dezan maiatzaren 23ko 53/2007 Foru Agindua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion aukerako irakasgaien curriculumak onetsi eta irakasgai horiek nola eman arautzen duena, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtsoko aukerak ere onesten dituen. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, Sirian edozein esku-hartze militar egitearen kontrakoa. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Jean Haritschelhar jaunari gordetzen dion esker ona, hark euskararen alde eginikoengatik. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak Donostia Europako Kultura Hiriburu izatearen alde egiten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gastu guztiak finantza ditzan, erosahalmenaren galera dela-eta langileei osagarri bat ordaintzeko udal batzuen erabakiaren aurka Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoarekin zerikusia duten prozesu judizialeatik eratorritakoak. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak onetsia (11. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, publiziterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitutako kontratuei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (12. or.).
- Galdera, BEZagatiko tributu-zordunen saldo hartzekodunari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (13. or.).
- Galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuak asmorik duen eskola-garraiorako laguntza emateko DBHko ikasketa egiteko Biurdanaren ordezkari Leitzako institutua aukeratu duten Lekunberriko familiei, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (14. or.).
- Galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Gobernuak ez dion alegaziorik aurkeztu Gipuzkoako Aldundiak bertako zenbait errepidetan bidesariak ezartzeko aurkeztu duen proiektuari, eta horri buruzko ekimenik abian jarriko ote duen, Maite Esporrín Las Heras andreak egina (14. or.).
- Galdera, nekazari eta abeltzainei lehen instalaziorako eta hobekuntza planetarako laguntzak emateari buruzkoa, M.^a Carmen Ochoa Canela andreak egina (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernua Leitzako Maxurrenea etxea gizarte edo kultur jardueretarako erabiltzera premiatzen zuen mozio onetsia betetzeari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (16. or.).
- Galdera, 2012ko zerga-presioaren adierazleari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Audenasa sozietatearen akzioen erosketa dela-eta entitate desberdinekin hartutako zorrari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (17. or.).
- Galdera, 2008tik 2012ra Gizarteratze errenta emateko prozesuari buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Kirol Justiziarako Batzordearen jarduketei buruzkoa, CD Cabanillas taldeak aurkeztutako salaketa dela-eta, Amaya Zarranz Errea andreak egina (18. or.).
- Galdera, uztailearen 12ko 9/2013 Errege Dekretuak hurrengo bost urteetako diru-bilketan izanen duen eraginari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak uztailearen 12ko 9/2013 Errege Dekretuaren gainean duen iritziari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (20. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 3/2013 Legegintzako Foru Dekretua, uztailearen 17koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena (21. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zergari buruzko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Zenbait autonomia erkidegok kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zuzeneko zerga bat arautu dute azken urteotan. Zerga horren zergapeko egintza da kreditu-erakundeek hirugarrenen funtsak atzitzea, edozein izaera juridikoz, eta funtsak itzultzeko betebeharrarekin. Extremadurako azaroaren 29ko 14/2001 Legea izan zen onetsitako lehena, eta aurkaratua izan zen Konstituzio Auzitegian, zeinak, azaroaren 14ko 210/2012 zenbakiko epaiaren bidez, ezetsi egin baitzuen konstituzio kontraketatasun-errekurtsoa, esanez zerga

horrek ez duela eragiten zerga-ekarpen bikoitzik, ez balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, ez jarduera ekonomikoaren gaineko zergari dagokionez ere, ez diela eragiten kapitalen joan-etorri askeari edo kokatzeko askatasunari, eta ez duela hausten lurraldez kanpoko ondasunak edo egintzak ez kargatzeko debekua. Geroago, Andaluziak (abenduaren 3ko 11/2010 Legea), Asturiasek (abenduaren 28ko 3/2012 Legea), Kanariar Uharteek (ekainaren 25eko 4/2012 Legea) eta Kataluniak ere (abenduaren 18ko 5/2012 Lege-dekretua) ezarri zuten zerga.

Azkenik, "Finantza-sistemaren funtzionamenduan efizientzia handiagoa bermatzen duen tratamendu fiskal harmonizatu bat ziurtatzeko asmoz", Finantza publikoak sendotzera eta jarduera ekonomikoa bultzatzera bideratutako tributu-neurriei buruzko abenduaren 27ko 16/2012 Legeko 19. artikulua kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga sortu zuen, 2013ko urtarrilaren 1etik aitzinako ondorioekin, Espainiako lurralde osoan eska daitekeen zuzeneko zerga gisa, "Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetan eta Nafarroako Foru Komunitatean hurrenez hurren foruetako zerga-araubide diren ekonomia-itunari eta ekonomia-hitzarmenari kalterik egin gabe".

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoko 45. artikuluekin bat, Nafarroako zerga eta finantza jarduera hitzarmen ekonomikoaren tradiziozko sistemaren bidez arautzen da, eta Nafarroak bere zerga-araubideari eusteko eta hura ezarri eta arautzeko ahalmena du. Uztailaren 15eko 25/2003 Legearen bidez onetsitako Hitzarmen Ekonomiko indardunaren 2. artikulua ezartzen duenez, Nafarroako Foru Komunitateak ahalmena du hitzartutakoez bestelako zergak ezartzeko, baldin eta hitzarmenean jasotako harmonizazio irizpideak eta printzipioak errespetatzen badira; besteak beste, solidaritate printzipioa, benetako zerga-presio orokorra Espainiako gainekoan dagoenaren baliokidea izatea, pertsonen

joan-etorri eta kokatze askatasuna eta Espainiako lurralde osoan ondasunek, kapitalek eta zerbitzuek libreki zirkulatzea, ondorio diskriminatzailek eragin gabe.

Xedapen horiek direla-eta, bidezkoa da Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan sortzea eta arautzea bertako lurraldean jarduten diren kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga.

1. artikulua. Sorrera.

Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga sortu da, zeina foru lege honetan jasotako xedapenei jarraikiz arautiko baita.

2. artikulua. Zergaren izaera eta xedea.

Kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga, izaera zuzeneko tributu bat da, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean jarduten diren kreditu-erakundeetan jarritako gordailuak kargatzen dituen, foru lege honetan ezarritako moduan eta baldintzetan.

3. artikulua. Zergapeko egintza.

Zergapeko egintza da foru lege honetako 6. artikuluan adierazitako zergadunek hirugarrenen funtsak mantentzea, mantentze horren izaera juridikoa zein ere den, eta funtsak itzultzeko betebeharrak baldin badakar.

4. artikulua. Salbuespenak.

Honakoak daude zerga honetatik salbuetsiak:

1. Espainiako Bankua eta diru-arauketako agintariak.

2. Europako Inbertsio Bankua.

3. Europako Banku Zentrala.

4. Kreditu Ofizialeko Institutua.

5. artikulua. Zergaldia eta sortzapena.

Zergaldia urte naturala izanen da.

Halere, Foru Komunitatean jardueraren hasiera gertatzen den zergaldian, jarduera hasi den egunetik urte naturala bukatu bitartekoa izanen da zergaldia.

Zergaldia betiere bukatuko da zergadunak Foru Komunitatean jarduteari uzten dionean.

Zerga sortuko da zergaldiaren azken egunean.

6. artikulua. Zergadunak.

1. Zergaren zergadunak izanen dira:

a) Kreditu Erakundearen alorreko indarreko Zuzenbidea Europako Erkidegoetakora egokitu beharri buruzko ekainaren 28ko 1298/1986

Legegintzako Errege Dekretuko 1. artikuluan zehaztutako kreditu-erakundeak, Foru Komunitatearen lurraldean jarduten badute eta lurralde horretan hirugarrenen funtsak eskuratzen badituzte, bai bere egoitza nagusiaren bidez, bai lurralde horretako sukurtsal eta bulegoen bidez; betiere, itzultzeko betebeharrarekin.

b) Atzerriko kreditu-erakundeek Foru Komunitatearen lurraldean dituzten sukurtsalak, jarduketa horiek egiten dituztenak.

2. Aipatu erakundeek ezin diete hirugarrenei inolaz ere jasanarazi zerga honen kuota.

7. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zerga-oinarria da zergaldiko hiruhileko natural bakoitzeko azken saldoaren batez besteko aritmetikoa egitetik heldu den zenbatekoa, kreditu-erakundearen balantzearen pasibo erreserbatuko 4. kontusailari –"bezeroen gordailuak", finantza-orri indibidualetan jasotakoak– dagokiona, Foru Komunitateko lurraldeko egoitza nagusiak edo sukurtsalek eskuratutako gordailuei dagokien zatian.

Horretarako, azken saldoa minoratuko da 4.1.5, 4.2.5, 4.3.2 eta 4.4.5 kontusailetan jasotako "balorazio doikuntzen" zenbatekoetan.

2. Artikulu honetan aipatutako parametroak dagozkien finantza-informazio publiko eta erreserbatuko arauak eta finantza-egoera orrien ereduak buruz Espainiako Bankuak kreditu-erakundeak emandako abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularreko IV. eranskinean eta II. tituluan jasotakoei, edo horren ordezkio arauak jasotakoei.

8. artikulua. Zerga-kuota.

1. Kuota osoa zerga oinarriari honako kargatasa aplikatuz kalkulatu da.

Zerga-oinarria, €-raino	Kuota osoa, (€)	Zerga-oinarriaren hondarra, €-raino	Aplikatu beharreko zerga-tasaren (%)
–	–	150.000.000	0,3
150.000.000	450.000	600.000.000	0,4
600.000.000	2.250.000	hortik aitzina	0,5

2. Kenkari orokorrak. Erregelamenduz ezarritakoaren arabera kalkulatu ateratzen den kuotatik ondoko zenbatekoak izanen dira kengarriak:

a) Kuota osoaren % 20, baldin eta kreditu-erakundearen egoitza soziala Nafarroan badago.

b) 5.000 euro, Nafarroako lurraldean kokatutako sukurtsal edo bulego bakoitzeko; kantitate hori 5.500 euroraino igoko da baldin eta eroldaren arabera 2.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan kokaturik badaude.

3. Kuota likidoa izanen da tributu-kuotari artikuluhonetako 2. idatz-zatian ezarritako kenkariak aplikatetik heldu dena. Kuota likidoak ez du inolaz ere izanen 0 euro baino gutxiagoko baliorik, eta ezin baldin bada inolako kenkaririk aplikatu, kuota likidoa kuota osoaren berdina izanen da.

4. Kuota diferentziala izanen da egindako konturako ordainketak kuota likidoari kentzetik heldu den emaitza, zeina konpentsatu egin ahalko baita, foru lege honetan ezarritako moduan, baldin eta likidaziotik ateratzen den tributu-kuota negatiboa bada, eta positiboa balitz, likidaziotik ateratzen den kuotaren zati osoa bada.

5. Autolikidaziotik ateratzen den tributu-kuota izanen da kuota diferentzialari indarreko ekitaldiko konturako ordainketak, itzulketarako eskubidea sortzen dutenak, gehitetik ateratzen dena, baldin eta negatiboa bada, foru lege honetan ezarritako moduan.

9. artikulua. Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskaritza.

1. Zergaren kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskaritza Nafarroako Zerga Ogasunari dagozkio, eta hori ez da eragozpen izanen kontrolaren xede diren finantza-establezimenduen arabera sektorean eskudun diren ikuskaritza-organoekin lankidetzan aritzeko.

2. Zergadunek zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko dute zergaldiaren osteko urteko uztailean, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezarritako tokian eta moduan.

3. Autolikidazioarekin batera aurkeztuko dira erregelamendu bidez ezarritako zerrendak, informazioa jasoko dutenak Nafarroan kokatutako sukurtsal bakoitzaren edo/eta entitatearen egoitza zentralaren azken lau hiruhileko naturaletako bakoitzaren azken saldoari buruz, modalitateen arabera bereizita, eta ezin izanen dute bankusekretua baliatu informazio horretan datuak ezkatatzeko.

4. Nafarroan bulegoak dituen erakunde batek ez badu kasuko autolikidazioa epearen barruan aurkezten, Nafarroako Zerga Ogasuneko kudeaketa-organoek prozedura abiarazi ahal izanen dute, eskueran dituzten datuekin behin-behineko likidazioa egiteko. Modu horretan egindako likidazioaren betearazpena ezertan ere eragotzi gabe, Nafarroako Zerga Ogasuneko organo eskudunek egiaztapen eta ikerketa jarduketak abiarazi ahal izanen dituzte, egindako likidazioaren xede den aldiari buruz.

10. artikulua. Konturako ordainketa egin beharra.

Zergadunak behartuta daude konturako ordainketaren autolikidazio bat aurkeztera, kasuko zergaldiarena, ekitaldi bakoitzeko uztailean, aurreko zergaldiaren zerga-oinarriari zergaldi horretan indarrean den zerga-tasa aplikatetik heldu den kuotaren ehuneko 50ekoa.

11. artikulua. Arau-haustea eta zehapenak.

Foru lege honetan eta foru legea garatzeko araudian xedatutakoa ez betetzetik heldu diren tributu arloko arau-haustea Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

Xedapen iragankorra.

Foru lege honetan ezarritakoa garatzeko erregelamenduzko xedapenak onetsi arte, eta kobratzea errazte aldera, Nafarroan bulegoak irekita dituzten kreditu-erakundeak behartuta egonen dira zerga aplikatzen den lehen ekitaldiaren hurrengo urtarrilaren 30a baino lehen Nafarroako Zerga Ogasunari jakinaraztera balizko likidazioa egiteko beharrezkoak diren datuak.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra. Betiere, 2013ko urtarrilaren 1etik aitzina hasitako zergaldietako ondorioekin eskatuko da zerga.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeak zuzenbidearen araberakotzat edota Nafarroarentzat komenigarritzat ez jotzeagatik Nafarroako Gobernuak sistematikoki ez betetzeko politika orokorren gainekoa.

XABIER LASA GORRAIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Xabier Lasa Gorraiz jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeak zuzenbidearen araberakotzat edota Nafarroarentzat komenigarritzat ez jotzeagatik Nafarroako Gobernuak sistematikoki ez betetzeko politika orokorren gainekoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Xabi Lasa Gorraiz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuko lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari.

Jabeldura, Nafarroako Parlamentuak onetsitako legeak zuzenbidearen araberakotzat edota Nafarroarentzat komenigarritzat ez jotzeagatik

Nafarroako Gobernuak sistematikoki ez betetzeko politika orokorren gainekoa.

Legegintzaldiaren bigarren urtetik aurrera, nabarmena gertatzen da zer jokabide hartu duen zu lehendakari zaituen gobernuak: sistematikoki urratzea Nafarroako legebiltzarrak onetsitako lege gehienak, horretarako era askotako trikimailuak erabiliz. Batzuetan, errekursoak jartzen dira auzitegietan, txosten juridiko bihurrikatuak oinarri, helburu bakar gisa hartuta onetsitako legearen aplikazioa atzeratzea edo ekiditea; beste batzuetan, justifikaziorik gabe atzeratzen da arauaren NAOko argitalpena eta legea burura eramateko oztopoak eta zailtasunak dakartzaten neurriak hartzen dira; beste zenbaitetan, Espainiako Gobernuarekin eta Nafarroan duen ordezkariarekin nabarmen elkar hartuta, legeen efektuak baliorik gabe uztearren... Jokatzeko modu horrek defizit demokratiko nabaria sortzen du gure erkidegoan, deuseztatu egiten baitu Nafarroak legegintzarako eta garapen politiko autonomorako duen gaitasuna.

Horregatik, parlamentu-talde honek jabeldura aurkeztu dio lehendakari andreari, jakiteko asmorik duen modu gaitzesgarri horretan jokatzeko jarraitzeko, edo onartuko duen, aldiz, bere jarrera eta bere gobernuarena aldatu eta errespetatzea eta men egitea Nafarroako herriaren botere legegileari eta ordezkaritza demokratikoari.

Iruñean, 2013ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Xabi Lasa Gorraiz

Jabeldura, Nafarroako Parlamentuak enpleguaren arloan onetsitako erabakiak betetzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Parlamentuak enpleguaren arloan onetsitako erabakiak betetzearen gaineko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida dadin –izapideak modu urgentean egin daitezela eskatzen du–, Nafarroako Ekonomia Dinamizatzeko Mahaiak erabakitako neurrien betetze- eta inplementazio-mailaren gainean Nafarroako Gobernuak duen politika orokorrari buruz.

Nafarroako Ekonomia Dinamizatzeko Mahaiak, "Enpleguaren Mahaia" delakoak, bere lanak Foru

Erkidegoko eragile ekonomiko eta lan-arlokoen parte-hartzearekin gauzatu zituen, 2013ko bigarren hiruhilekoan. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrak uztailaren 1ean emandako adierazpen instituzional baten bidez onetsi ziren Enpleguaren Mahaiaren ondorioak,

eta Parlamentuaren Osoko Bilkurak aurtengo abuztuaren 6an berretsi zituen.

Aipatuztat jotzen ditugu onetsitako neurriak, eta azpimarratu nahi dugu neurrioren borondatea dela enplegua modu urgentean sortzea, legeak edo erregelamendu-mailako arauak aldatuz, edo jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri zehatzen bidez, eta badutela neurriok horretarako gaitasuna.

Hala ere, jabeldura hau aurkeztu den egunera arte, UPNren Gobernuak ez ditu neurriok abian jarri; horrela, denbora baliotsua galdu du onetsi zirenetik –ekainaren amaiera aldean– gaurdaino, eta galdu egin du, horrenbestez, epe labur eta ertainean lanpostu berriak sortzeko aukera.

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak jabeldura aurkeztu dio Nafarroako Gobernuari,

Parlamentu honek enpleguaren arloan onetsitako erabakiak betetzearen gaineko politika orokorrari buruz.

Iruñean, 2013ko irailaren 5ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Jabeldura, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren eta hura berritzearen inguruan Nafarroako Gobernuak duen politika orokorrari buruzkoa.

JUAN CARLOS LONGÁS GARCÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Carlos Longás García jaunak aurkezturiko jabeldura, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren eta hura berritzearen inguruan Nafarroako Gobernuak duen politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

JABELDURAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Juan Carlos Longás García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko jabeldura aurkezten dio Nafarroako Gobernuak lehendakari Yolanda Barcina Angulo andreari.

Jabeldura, Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren eta hura berritzearen inguruan Nafarroako Gobernuak duen politika orokorrari buruzkoa.

2011ko otsailean sinatu zen Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren eguneratzea 2010-2014 aldirako. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legeko III. tituluaren araututako koordinazio batzordearen baitan lortu zen akordioa. Akordioaren indarraldia, hortaz, laster bukatuko da, eta hitzarmena gaurkotu edo aldatu beharra dago.

Negoiazio prozesua, itxura batean, testuinguru konplexu batean gauzatuko da; segur aski, Nafarroarentzat egokiena ez den eta are kontraktatzat jo daitekeen batean. Alde batetik, ukazina da Estatuaren joera birzentralizatzailea, zeinak, azken batean, jardute gaitasunaren eta eskumenen hustutze bat baitakarkie autonomia erkidegoei. Bestalde, aipatu birzentrazioaren atzean dauden interes berberak bultzatuta neurri batean, ikus daiteke foru araubidea gero eta gehiago jartzela auzitan estatuan —esajeratzeko beldurrik gabe, orokortzat jo daitekeen joera da—, zeren auzitan jartze hori alderdi txikiren batek piztu eta bereziki gordinki adierazten badu ere, gehiengoaren duten bi alderdietako ordezkari kualifikatuek ere onartua baita neurri txiki ala handiagoan. Aldiro egiten dira salaketak: pribilegioak eta elkartasun falta hartzen dira hizpide (paradisua fiskala izatea ere leporatu izan dute ahotsik estrabaganteenak). Hori gutxi, eta Nafarroako Gobernuak, gainera, ez du instituzio hori behar besteko irmotasunez defendatzen, eta ez du egin beharreko pedagogia egiten. Hirugarrenik, Hitzarmenaren dinamikak, eta, bereziki, BEZaren doitzearnak, Volkswagen Navarra S.A.k aldatu egin baitu bere ekoizpena komertzializatzeko modua, presazko aldaketa bat egitera behartu dute, eta gerta daiteke sakoneko erreforma bat egin beharra sistema guztiari, zeina eraso gogorak izaten ari baita eta neke-zantzuak agertzen baititu.

Testuinguru horretan, eta gai honen garrantzi orokorra dela-eta (garrantzi politikoa, soziala, ekonomikoa), interesa dugu jakiteko zer jarrera duen Nafarroako Gobernuak afera honetan, nola dutsan egoera, zer itxaropen eta zer asmo dituen negoziaketa-akereki dagokienez eta jarraitu beharreko negoziaketa-metodoari dagokienez.

Iruñean, 2013ko irailaren 5ean.

Foru parlamentaria: Juan Carlos Longás García

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da alda dezan maiatzaren 23ko 53/2007 Foru Agindua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion aukerako irakasgaien curriculumak onetsi eta irakasgai horiek nola eman arautzen duena, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtsoko aukerak ere onesten dituen.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita alda dezan maiatzaren 23ko 53/2007 Foru Agindua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion aukerako irakasgaien curriculumak onetsi eta irakasgai horiek nola eman arautzen duena, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtsoko aukerak ere onesten dituen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 197. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

53/2007 Foru Aginduak, maiatzaren 23koak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapari dagozkion aukerako irakasgaien curriculumak onetsi eta irakasgai horiek nola eman arautzen du, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren kurtsoko aukerak ere onesten ditu.

Foru agindu horretan agertzen den bezala, Hezkuntza Departamentuari dagokio aukerako irakasgaien eremua antolatzea, kontuan hartuta ikasleen behar eta interesak, barne eta kanpo ebaluazioen emaitzak eta gaur egungo gizartearen eskariak; horretarako, irizpide batzuei jarraitzen die, nola baitira, esate baterako, hizkuntzen ikasketa indartzea eta hizkuntzaren bidez komunikatzeko oinarriko konpetentzia garatzea.

Jakina da, halaber, aukerako irakasgaiak lagundu egiten dietela ikasleei beren gaitasunak garatzen, eta, hori horrela, ez dirudi egokia denik aukeratzeko ahalmen hori mugatzea, oso lagungarri izan baitaiteke, are emaitzak hobetzeko ere.

Behin esanda zein diren aukerako irakasgaiak DBHn dituzten irizpideak eta bilatzen dituzten helburuak, harrigarria gertatzen da G/A ikastetxe batean A ereduak aukeratzeko duten ikasleek erabat mugatua ikustea aukeratzeko ahalmen hori. Lehenbiziko hiru mailetan, ez dute aukeratzeko batere ahalmenik, eta ikastetxe berean G ereduari ari direnek, berriz, hiru irakasgai dituzte aukeran. Laugarren mailan jarraitu egiten du diskriminazio horrek; izan ere, curriculumaren barruko atalean bakarrik aukera dezakete ikasle horiek, eta deuseztatuta gelditzen da berriro ere aukerako irakasgaiak izateko aukera.

Badakigu eskaintza beste modu batean egitea balegokeela, halako moduz non, gutxienez, laugarren mailan aukera zabalagoa izanen litzatekeen. Gaur egungo gizartearen eskaera bati konponbidea ematen ez saiatzea, ikasleen interesak kontuan ez izatea, hizkuntzen ikaskuntza ez indartzea, edo ahaztea euskarak ere, nahiz eta atzerrikoa ez izan, trataera duina merezi duela erkidegoko berezko hizkuntza delako: jarrera hori, foru aginduan aipatutako irizpideen kontra joateaz gain, baztertzailerak gertatzen da eta borondate politiko baten ondorio da, nekez ulertzen ahal baita bestela.

Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du alda dezan maiatzaren 23ko 53/2007 Foru Agindua, aukera-berdintasuna ziurtatzeko, edozein dela ere hautatutako ereduak, halako moduz non, antolamenduaren aldetik posible denean, A/G ikastetxeetan A ereduak ikasten duten ikasleek ez dezaten diskriminaziorik izan beren aukeratzeko gaitasunean.

Iruñean, 2013ko abuztuaren 30ean.

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso eta Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Adierazpen instituzionala, Sirian edozein esku-hartze militar egitearen kontrakoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta deitoratu egiten du zenbaterainoko konfrontazio belikoa bizi duen Siriako herriak, eta adierazten du bere

jarrera Sirian gerta daitekeen edozein esku-hartze militarren kontrakoa dela, eta Bake Konferentzia berriro abian jartzearen alde egiten du".

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu Jean Haritschelhar jaunari gordetzen dion esker ona, hark euskararen alde eginikoengatik.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1.- Jean Haritschelhar jauna berriki zendu da, eta Nafarroako Parlamentuak bere esker ona agertzen du hark euskararen alde egin zituen lan eta ahalegin guztiengatik; bereziki, Nafarroako erakundeei eta gizarteari hizkuntza-aferetan,

legez ezarritakoari jarraikiz, eskainitako aholkulanarengatik.

2.- Adierazpen hau helaraziko zaie bere familiari, Euskaltzaindiari, Baigorriko Udalarari eta Nafarroako gizarteari".

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak Donostia Europako Kultura Hiriburua izatearen alde egiten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Donostia, senide dugun hiria, Europako Kultura Hiriburua izanen da, eta Nafarroako Parlamentuak horren alde egiten du, eta adierazten du egozia litzatekeela hala Iruñeko Udalak nola Nafarroako Gobernuak ahalik eta laguntza handie-

na ematea ospakizun horretarako, Nafarroak interes kultural komunak baititu Euskal Autonomia Erkidegoarekin, eta zehazki Donostiarekin, zeina Nafarroako errege Antso VI.a Jakitunak sortutako hiria baita".

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gastu guztiak finantza ditzan, erosahaltenaren galera dela-eta langileei osagarri bat ordaintzeko udal batzuen erabakiaren aurka Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoarekin zerikusia duten prozesu judizialeatik eratorritakoak.

LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeak, 2013ko irailaren 6an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gastu guztiak finantza ditzan, erosahaltenaren galera dela-eta langileei osagarri bat ordaintzeko udal batzuen erabakiaren aurka Gobernuak Nafarroan duen ordezkariak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoarekin zerikusia duten prozesu judizialeatik eratorritakoak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du finantza ditzan izan litezkeen prozesu judizialeatik eratorritako gastuak, Gobernuaren Nafarroako ordezkariak Nafarroako Foru Komunitateko udal batzuen erabakiaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa dela-eta. Erabaki haren bidez, udal horietako langileei 2012ko abenduan osagarri bat ordaintzea onetsi zuten, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean, erosahaltenaren galera dela-eta, ekainean jasotako aparteko ordainsariaren zenbatekoaren parekoa.”

Iruñean, 2013ko irailaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitutako kontratuei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitutako kontratuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko ahozko galdera egin dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariari, Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Eskura daukagun informazioaren arabera, 2012an 732 kontratu igorri dira Kontratuen Erregistroa, zeina Kontratazio Publikorako Bartzordearen menpe baitago; adjudikatutako zenbatekoak, guztira, 232.760.304,17 euro egiten du.

Kontratu horietatik 203 Nafarroako Gobernuaren departamentuek eginak dira, 255 Nafarroako toki entitateek, 87 Nafarroako Gobernuaren erakunde autonomoek, 123 Gobernuaren menpeko edo Gobernuari lotutako merkataritza-sozietateek, eta gainerakoak NUPek, elkarteek, fundazioek eta bestelakoek eginak dira.

Era berean, adjudikatutako zenbatekoari begiratuta, honela sailkatzen dira kontratuak: guztia-
ren % 31,71 Gobernuaren departamentuek adjudikatu dute; % 34,15, toki entitateek; % 19,75,

erakunde autonomoek; % 10,92, merkataritza-sozietateek; eta gainerakoa, NUPek, elkarteek, fundazioek eta bestelakoek.

Adjudikazio-prozedura erabilienak izan dira prozedura irekia (kontratuen % 37,43 eta zenbatekoaren % 81,40), eta prozedura negoziatu publizitaterik gabea (kontratuen % 60,66 eta zenbatekoaren % 17,17).

Bereziki da interesgarria xeheago aztertzea prozedura negoziatu publizitaterik gabea erabiliz adjudikatutako kontratuak; izan ere, prozedura oso ohikoa da eta, aldi berean, oso diskretua, eta zalantzaren bat eragin dezake, non aukera-berdintasuna edo gardentasuna bezalako printzipioak hain garrantzitsuak gertatzen diren egoera batean.

732 kontratuetatik 444 prozedura horren bidez adjudikatu ziren. Guztira, 39.961.983,07 euro; alegia, batez beste 90.004 euro kontratuko.

444 kontratuetatik 149 Nafarroako Gobernuaren departamentuek adjudikatu zituzten, 121 toki entitateek, 50 erakunde autonomoek, 87 merkataritza-sozietate publikoek, eta 37 NUPek, elkarteek, fundazioek eta bestelakoek.

Nafarroako Gobernuaren departamentuek adjudikatutako kontratuen batez besteko zenbatekoak 85.575 euro egin zituen, eta erakunde autonomoek eta merkataritza-sozietateek adjudikatuek 104.816 euro eta 132.027 euro, hurrenez hurren. Gobernuaren barruan, departamentuek ez zuten modu homogeneoan jokatu. Zenbatekoari erreparatuta, nabarmenak dira Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuaren datuak: 28 kontratu adjudikatu zituen prozedura hori erabiliz, eta adjudikatutako batez besteko zenbatekoa 139.249 eurokoa izan zen.

Hona galdera:

1. Egokia iruditzen al zaio Gobernuari hainbeste kontratu formalizatzea prozedura negoziatu

publizitaterik gabea erabiliz, eta kontratuon batez besteko zenbatekoa erlatiboki hain handia izatea?

2. Prozedura hori erabiliz adjudikatutako kontratuetan batez besteko kopuru handienak izan dituzten entitate edo departamentuei, esate baterako Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Departamentuari, helarazi al die Gobernuak gidalerroren bat?

3. Nafarroako Gobernuari egokia iruditzen al zaio aldaketaren bat egitea Nafarroako Kontratuen Legean, zehazki 73. edo 89. artikuluetan, non arautzen baitira, hurrenez hurren, Europar Batasunean publikitaterik ez duten prozedura negoziatuak eta komunikazio publikoko arauak Europar Batasuneko atalasetik beherako kontratuetan?

Iruñean, 2013ko abuztuaren 29an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, BEZagatiko tributu-zordunen saldo hartzekodunari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, BEZagatiko tributu-zordunen saldo hartzekodunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilari Lourdes Goicoechea andreak Ekonomia eta Ogasun Batzordean ahoz erantzun dezan:

2012ko abenduaren 31n, BEZagatiko tributu-zordunen saldo hartzekoduna (enpresei itzuli beharreko saldoa) 229 milioi euro baino zertxobait handiagoa zen. Saldo hori bera 165 milioi euro

baino zertxobait handiagoa zen urtebete lehenago; alegia, 2012an zehar 64 milioi igo zen, hots, ia % 40.

2010eko abenduaren 31ko saldoarekin konparatuz gero, aldea ikaragarria da. Egun horretako saldoa 24 milioi euro baino zertxobait handiagoa zen.

Berrikitan, abuztuaren 23an, prentsan argitaratu da Gobernuak lehentasuna eman diola, beste auzi batzuen aldean, BEZa itzultzeari.

Hona galdera:

1. Zein da, itxitako balantze hurbilenaren arabera, egungo saldo hartzekoduna?

2. Nafarroako Gobernuak eutsi egiten al dio legezko epea muturreraino eramateko politikari, ala asmorik badu aldaketaren bat egiteko gai horretan?

3. Zenbateraino ari da erabiltzen enpresek bere garaian planteatutako finantzaketa-bidea? Nafarroako Gobernuak ba al daki saldo horren zer parte finantzatu ahal izan duten enpresek finantza-erakundeetan?

Iruñean, 2013ko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuak asmorik duen eskola-garraiorako laguntza emateko DBHko ikasketa egiteko Biurdanaren ordez Leitzako institutua aukeratu duten Lekunberriko familiei.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa Hezkuntza Departamentuak asmorik duen eskola-garraiorako laguntza emateko DBHko ikasketa egiteko Biurdanaren ordez Leitzako institutua aukeratu duten Lekunberriko familiei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilari Iribas jaunak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun dezan:

Lekunberriko zenbait familiak erabaki du Leitzako institutua aukeratzeko DBHko, eta ez Biurdana. Hezkuntza Departamentuak ba al du inolako asmorik familia horiei eskola-garraiorako laguntzarik emateko? Departamentuaren ustez, familiek beren gain hartu behar al dute eskolamapa gaurkotu ez izanak eragindako gailurik?

Iruñean, 2013ko abuztuaren 3an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Gobernuak ez dion alegaziorik aurkeztu Gipuzkoako Aldundiak bertako zenbait errepidetan bidesariak ezartzeko aurkeztu duen proiektuari, eta horri buruzko ekimenik abian jarriko ote duen.

MAITE ESPORRÍN LAS HERAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maite Esporrín Las Heras andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zergatik Nafarroako Gobernuak ez dion alegaziorik aurkeztu Gipuzkoako Aldundiak bertako zenbait errepidetan bidesariak ezartzeko aurkeztu duen proiektuari, eta horri buruzko ekimenik abian jarriko ote duen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Las Herasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapeneko kontseilari Zarraluqui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Ez da denbora asko igaro gure parlamentu-taldeak Osoko Bilkuran jada planteatu zuenetik ez gaudela ados Gipuzkoako Aldundiak bere zenbait errepidetan bidesariak ezartzearekin, Nafarroari zuzenean eraginez, neurri hori nabarmenki diskriminatzailea eta kaltegarria izateagatik gure interesentzat. Socialistas de Navarra parlamentu-taldea, noski, jarrera berari eusten diogu gaur egun.

Proiektuari alegazioak egiteko epea bukatu da, eta harrigarria da Nafarroako Gobernuak inolako alegaziorik aurkeztu ez izana.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak zergatik ez dio alegaziorik aurkeztu Gipuzkoako Aldundiak bere zenbait errepidetan bidesariak jartzeko duen proiektuari,

zeinak eragin nabarmena izanen baitu nafarrentzat?

Ba al du asmorik horri buruzko inolako ekimenik abiatzeko?

Iruñean, 2013ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Maite Esporrín Las Heras

Galdera, nekazari eta abeltzainei lehen instalaziorako eta hobekuntza planetarako laguntzak emateari buruzkoa.

M.^a CARMEN OCHOA CANELA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea M.^a Carmen Ochoa Canela andreak aurkeztutako galdera, nekazari eta abeltzainei lehen instalaziorako eta hobekuntza planetarako laguntzak emateari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako Mari Carmen Ochoa Canela andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Landa

Garapeneko Departamentuak batzordean ahoz erantzun dezan:

- Noiz sinatuko dira nekazarien eta abeltzainen hobekuntza planetarako eta lehen instalaziorako laguntzak emateko ebazpenak?

- Finantza-erakundeek, egun, uko egiten diote kredituak 97tik aitzina sinatutako interes-tasan emateari. Akordioa betetzea exijituko da, ala Nafarroako Gobernuaren eta finantza-erakundeen arteko hitzarmen berri bat sinatuko da, azken horiek arrazoizko interes batean eman ditzaten kredituak?

- Finantza-erakundeek Nafarroako Gobernuak 97an sinatutako akordioak onartu nahi ez izateagatik kreditu-kontzesiorik aurkezterik ezin izan duten nekazariak eta abeltzainak aurkeztu ahal izanen dute berriz ere beren eskabidea?

Iruñean, 2013ko irailaren 4an

Foru parlamentaria: María Carmen Ochoa Canela

Galdera, Nafarroako Gobernu Leitzako Maxurrenea etxea gizarte edo kultur jardueretarako erabiltzera premiatzen zuen mozio onetsia betetzeari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernu Leitzako Maxurrenea etxea gizarte edo kultur jardueretarako erabiltzera premiatzen zuen mozio onetsia betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Parlamentu honek ekainaren 27an egindako bilkuran, erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen fundazio-manua bete zezan, Leitzako Maxurrenea etxea ahal bezain laster erabili ahal izateko jarduera sozial edo kulturaletarako.

Kontratua sinatu zenetik 10 urte iraganda, kontratuak horretarako bidea ematen duenez, hauxe jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak zer egin du Parlamentuaren erabakia eta Leitzako herritarren eskaria betetzeko?

Iruñean, 2013ko irailaren 5ean

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

Galdera, 2012ko zerga-presioaren adierazleari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, 2012ko zerga-presioaren adierazleari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak aurkeztutako informazioaren arabera, presio fiskalaren indizea 2012an jaitسي egin zen 2011koarekin alderatuta. Horrela, 5.109 eurotik 4.576 eurora jaitسي zen biztanleko; hau da, 533 euro biztanleko. Ehuneko 10 baino gehiago; ez da gutxi, gero.

Gobernuaren arabera, kalkulu hori egiteko, zerga eta tasa fiskalen bidez bildutako dirua zati

biztanle kopurua egiten da. Biztanle kopurua argi dago zein den. Koadratzen zailagoa dena da zergen eta tasen batura.

Presio fiskalaren indizea adierazle garrantzitsua den neurrian, eta parlamentari honen iritziz zerbakitzailako datuak ez dirudienez zuzenak direnik, Gobernuari argibideak eskatzen zaizkio erabili dituen datuen jatorriari buruz, eta egiazta dezala ea kalkulua egokia ote den edota akatsen bat egin den.

Hona galdera:

1. Zer datu erabili dira adierazle horren zerbakitzailan, eta nondik hartu dira?

2. Zuzena al da 2012ko adierazlea, zeinaren arabera biztanleko presio fiskala ehuneko 10 baino gehiago erori den 2011koarekin alderatuta?

Iruñean, 2013ko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Audenasa sozietatearen akzioen erosketa dela-eta entitate desberdinekin hartutako zorrari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Audenasa sozietatearen akzioen erosketa dela-eta entitate desberdinekin hartutako zorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasuna, Industria eta Enplegu kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 15.055.353 euroko zorra egin zuen zenbait entitaterekin, Audenasa sozietatearen akzioak erosteko. 2014an, zor horri aurre egin behar dio.

Hona galdera:

1. 2014ko zer datatan ordaindu behar da zenbateko hori?

2. Ordainketa horri lotuta ba al dago inolako baldintza edo murriztapenik? Hala bada, zein?

Iruñean, 2013ko abuztuaren 30ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, 2008tik 2012ra Gizarteratze errenta emateko prozesuari buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, 2008tik 2012ra Gizarteratze errenta emateko prozesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Gizarte Politiketako kontseilariak idatziz erantzun dezan.

1. Gizarteratze errenta emateko prozesuan iruzur egiten zuten zenbat pertsona detektatu dira errenta-emateen kopuru osoarekin alderatuta? Urteotako datuak eskatzen dira: 2008, 2009, 2010, 2011 eta 2012koak.

2. 2008tik gaurdaino, zenbat kide ditu gizarteratze errentari buruzko espedienteak aztertzen dituen zure departamentuko Ikuskapen Atalak?

Iruñean, 2013ko irailaren 3an.

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, Nafarroako Kirol Justiziarako Batzordearen jarduketei buruzkoa, CD Cabanillas taldeak aurkeztutako salaketa dela-eta.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kirol Justiziarako Batzordearen jarduketei buruzkoa, CD Cabanillas taldeak aurkeztutako salaketa dela-eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Polemika sortu da erabakitzean zer futbol-talde beteko duen CD San Cristóbal taldeak kategoria erregional gorenean bere tokiari uko egin ondoren; Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeak prozesu horretan parte hartu du, CD Cabanillas taldeak salaketa aurkeztu baitzuen. Polemika hori ikusita, hona zer galdetzen den:

– Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeak zer jarduketa egin dituen kasu honetan, eta horien datak.

- Prozedura hasi zeneko data.
- Prozesuan inplikaturako aldeak.
- Aldeek arbitrajearen bidea hautatu ote duten.
- Prozedurak ahozko faserik izanen duen edo fase idatzia izanen ote duen soilik.
- Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeak kasua noiz ebatziko duela aurreikusten den. Erantzuten denerako emana baldin badago ebazpena, ebazpen horren kopia edo arbitrajearen edukiarena. Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeak zer iritzi duen Nafarroako Futbol Federazioak Leitzako Aurrera KE taldea mailaz igotzeko hartutako erabakiaren arrazoiei buruz; hain zuzen ere, kirol-arrazoiak edo arrazoi administratiboak direla uste duen.
- Kirol Justiziako Batzordeak ba ote dakien Federazioko zer organok erabaki zuen Aurrera KE mailaz igotzea. Hala bada, eskatzen da zehatz dadila zer organo izan zen eta zer egunetan hartu zuen erabakia.
- Nafarroako Kirol Justiziako Batzordearen iritziz Aurrera KE mailaz igotzeko erabakiaren oinarria Federazioaren indarreko erregelamenduak diren edota beste batzuk.
- Kirol Justiziako Batzordearen ustez Federazioaren erabakia erregelamenduz ezarritako moduan adierazi ote zitzaizen ukituak gerta zitezkeen klubei.

– Kirol Justiziako Batzordearen ustez defentsagabezia gertatu al diren CD Cabanillas eta CD Zirauki.

– Kirol Justiziako Batzordeari iruditzen al zaion CD San Cristóbal ez dagoela Nafarroako Futbol Federazioari atxikia. Baiezkoan, zer datatan sorzen den egoera hori.

– Kirol Justiziako Batzordearen ustez klub bat desegiteagatik edo desagertzeagatik sortutako hutsunearen kasua jasota ote dagoen Nafarroako Futbol Federazioaren estatutuetan, erregelamenduetan, arau erregulatuazaleetan edota beste edozein xedapenetan.

– Aurrekoari baiezkoarekin erantzuten badio, Kirol Justiziako Batzordearen ustez ba al dagoen lege-hutsunerik Nafarroako futbol-lehiaketan gaineko araudian.

– Bide horretatik, Kirol Justiziako Batzordeak gomendiorik egin al dion Nafarroako Futbol Federazioari, edo egiteko asmorik ba al duen, hutsune hori betetzeko.

– Kirol Justiziako Batzordearen gaur egungo osaera.

– Kirol Justiziako Batzordea zer datatan berritu den, erabat edo partzialki, eratu zenetik. Datak eta pertsonen zerrenda eskatzen dira, aldaketak eta noren ordezkari diren zehaztuta.

Iruñean, 2013ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuak hurrengo bost urteetako diru-bilketan izanen duen eraginari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuak hurrengo bost urteetako diru-bilketan izanen duen eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretua dela-eta, parlamentari honek jakin nahi du dekretu horrek zenbateko eragina izanen duela kalkulatzeko duen Nafarroako Gobernuak hurrengo bost urteetako diru-bilketako zerga-kontzeptu ezberdinetan.

Iruñean, 2013ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuak uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuaren gainean duen iritziari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuaren gainean duen iritziari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin nahi du zer jarrera duen Nafarroako Gobernuak uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuari dagokionez, eta ea zer ekimen planteatuko dituen bere jarrera defendatze aldera, espresuki zehaztuz ea Foruaren Hobekuntzako 69. artikulua aktibatze asmorik duen.

Iruñean, 2013ko irailaren 3an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

3/2013 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 17koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusita uztailaren 17ko 3/2013 Legegintzako Foru Dekretua, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 162. artikuluan xedatutakoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea uztailaren 17ko 3/2013 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2013ko irailaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

3/2013 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 17koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzen duena

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 35.4. artikuluan ezartzen du ezen Foru Komunitateari dagozkion zerga bereziak ordainarazteko unean-unean Estatuako lurraldean indarra duten oinarritzko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak ibiliko dituela hark ere. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak aitorpena egin eta dirua pagatzeko ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere araubide erkideko lurraldeko datu berak jasoko

dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzerako pagatzeko epeak finkatzen ahalko ditu, Estatuako Administrazioak ezartzen dituenetatik sobera bereiziko ez direnak.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Estatuan indarra duten arau funtsezko eta formazko berberak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak eman ditzake, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, "tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu" izena emanen zaie.

Ekainaren 28ko 7/2013 Errege Lege-dekretuak, tributu eta aurrekontuen arloko eta ikerketa, garapena eta berrikuntza sustatzeko presako neurriak buruzkoak, 2012an hasitako zerga sendotzearekin jarraitzeko asmoz, zenbait aldaketa ezartzen ditu edari alkoholduen gaineko zergetan, zehazki, tarteko produktuen gaineko zergaren eta alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren esparruan, zerga tasak ehuneko 10 igotzen baititu.

Aldaketa horiek direla eta, beharrezkoa da, lehen aipatutako legegintzarako eskuordetzea erabiliz, tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu baten bidez Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzeko behar diren arauak ematea, abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 54.1 artikuluekin bat, Estatuarekin sinatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 35. artikuluen arabera Nafarroako Foru Komunitateak Estatuako lurraldean indarra duten arau ber-

din-berdinak –bai funtsari bai formari dagokionez– aplikatu behar dituen alderdietarako.

Berariaz xedatu da 20/1992 Foru Legean egindako aldaketek zer egunetatik aurrera izanen duten eragina; 14/2004 Foru Legearen 54.4 artikularen arabera, atzerako eragina izaten ahalko dute, harmonizazioaren xedeko araubide erkidegokoekin batera indarra har dezaten.

Horiek horrela, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hamahiruko uztailaren hamazazpian egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra. Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legea aldatzea.

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 30eko 20/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu eta ondoren azaldu bezala erredaktatuta geldituko dira:

Bat. 31. artikulua.

“Zerga honen tasak hauexek izanen dira:

a) Ehuneko 15etik beheitiko gradu alkoholiko bolumetrikoa duten bitarteko produktuetan: 36,65 euro hektolitroa.

b) Gainerako bitarteko produktuetan: 61,08 euro hektolitroa.”

Bi. 35. artikulua.

“Zerga tasa 913,28 eurokoa izanen da alkohol puruaren hektolitroko, 36. eta 37. artikuluetan xedaturikoa galarazi gabe.”

Hiru. 36.2.a) bosgarrena artikulua.

“Bosgarrena. Karga-tasa. Zerga tasa 799,19 eurokoa izanen da alkohol puruaren hektolitroko. Idatz-zati honetan xedaturikoa ez doa 37. artikuluan xedaturikoaren kontra.”

Lau. 36.2.b) bosgarrena artikulua.

“Bosgarrena. Karga-tasa. Zergaren karga-tasa 799,19 eurokoa izanen da alkohol puruaren hektolitroko. Idatz-zati honetan xedaturikoa ez doa 37. artikuluan xedaturikoaren kontra.”

Bost. 36.4. artikulua.

“Europar Batasuneko beste estatu batzuetako ekoizle beregainak ekoiztiriko edari deribatuei dagokien tasa, urtean alkohol puruaren 10 hektolitro baino gutxiago ekoizten badute, 799,19 eurokoa izanen da alkohol puruaren hektolitroko.”

Sei. 37. artikulua.

“Artisautzazko destilazioaren bidez lorturiko edari deribatuak zuzenean fabrikatik uzta biltzaileen kontsumora bideratzen direnean, errege-lamendu bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan, zerga tasa 215,58 eurokoa izanen da alkohol puruaren hektolitroko. Tasa honen aplikazioak alkohol puruaren 16 litroren baliokidea den kopurua izanen du muga, uzta biltzaile bakoitzeko, urte bakoitzean.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2013ko ekainaren 30etik aurrera izanen ditu ondorioak.

